

## **KANAL ETIKOAREN PROTOKOLOA**

### **1. ZER DA KANAL ETIKOA?**

“Kanal etikoa” “ANTONIO AÑOVEROS” ELEIZBARRUTIKO IKASTETXEEN FUNDAZINO KANONIKO AUTONOMOAK (aurrerantzean, “FUNDAZINOAK”), bere Araudi Etikoaren edo indarrean egonda ezarri egin behar den legeriaren urratzea ekarri lekien ekintzei edo ez-egiteei lotutako jakinarazpenak jasotzeko eta kudeatzeko eratuta dauan informaziorako barne sistema da.

### **2. NORK ERABILI LEIKE KANAL ETIKOA?**

Ondorengoek erabili leikie Kanal etikoa:

- FUNDAZINOAGAZ lan-kontratua besteren kontura gauzatu daben pertsonak.
- FUNDAZINOAK emoten dituen zerbitzuen onuradun diran pertsona fisiko edo juridikoak (esate baterako: Bizkaiko Eleizbarrutiko ikastetxeak)
- FUNDAZINOAGAZ kontratu bidezko lotura dauan edozein pertsonak (esate baterako: hornitzaileak)

### **3. ZELAN ZABALDU INFORMAZIOA?**

#### **3.1. Jardunbide informala**

Egoera gatazkatsua arin eta bizkor, jardunbide formaleko jardunbidean aurreikusitako guztia bete beharrik gabe, konpontzea da jardunbide informalaren helburua.

Pertsona batek bakarrik FUNDAZINOAREN Kode etikoari edo indarrean dan legeriari buruzko kontsulta egin nahi dauanerako da. Baita, hainbat lagunen arteko harremana gatazkatsua danean, FUNDAZINOAREN esku-hartze hutsa nahikoa danean kontua konpontzeko.

Balizko kasu horreetan, Nerea Begoña Lopategi And Bilboko Eleizbarrutiko ikastetxeetako zuzendariari jakinarazoko jako ahoz edo idatziz. Halanda be, prozesuari hartu-emon gatazkatsuakaz zerikusirik ez dauanen hirugarren batek eskatuta ekiten jakonean, nahitaezkoa da idatziz jasotzea.

Nerea Begoña Lopategi Andak bideratuko du jardunbide informala, aurkeztutako kontsultari erantzuna emonez, edo dagokionean, kontuak ikutzen dituan pertsonakaz batu eta hitz eginez, eta egoera argitzeko eta alde biek onartutako konponbidea lortzeko egokitzen jotzen dituan jarduketak gauzatuz.

Jakinarazpen guztiak seriotasunez, konfidentziasunez eta berehalakotasunez hartuko dira. Jardunbide informala prozedura amaitzeko gehieneko epea hamabost (15) egun baliadunekoa izango da, jakinarazpenaren biharamunetik hasita. Aurkeztutako kontsultari erantzun zuzenik emoten ez bajako edo alde biek onartutako konponbiderik lortzen ez bada, jardunbide formalari ekiteko aukera dago.

Urtean behin, Nerea Begoña Lopategi Andak Kanal etikoaren inguruan jasotako kontsulten, kudeatutako gatazken eta hartutako neurrien laburpena egingo dau, eta horren barri emongo deutso Kanal etikoaren Kudeatzaileari

Agiri hori zentsuratuta egongo da, eta ez dau ez inongo informazio konfidentzialik ez informatzailea edo eragina jasan daben pertsonak nor diran jakiteko balio leiken daturik jasoko.

### **3.2. Jardunbide formala**

FUNDAZINOAREN Kode etikoaren edo indarrean izanda ezarri beharrekoa dan legediaren urratzea ekarri leikien ekintzei edo ez-egiteei buruzko informazioa ondorengo bide honeetako batetik bialduko da:

- Helbide elektronikoa: [compliance@bizkeliza.org](mailto:compliance@bizkeliza.org)
- FUNDAZINOAREN Kanal etikoa, bere web orrialdean argitaratuta dagoana.
- Bilboko Eleizbarrutiaren Kanal etikoa, bere web orrialdean argitaratuta dagoana.

Bide honeetako batetik egindako jakinarazpenak Carlos Bargas Cuco Jn Bilboko Gotzaitetik Idazkari Nagusiak (aurrerantzean, "Kudeatzaile") jaso eta kudeatuko ditu. Oporrak, gaixotasuna edo legezko beste arrazoiren bat dala-eta berau ez danean, ordezkoa izendatuko da.

Salatutako egintzak Kudeatzaileak egindakoak izan ezkeru, jakinarazpena zuzenean bialduko jako Bilboko Gotzaitetik Bikario Nagusiari edo Eleizbarrutiko Gotzainari berari.

Ez da onartuko lehen aitaturako bideetatik desbardina dan beste edozein bidetatik bialdutako jakinarazpenik.

### **4. ZE BALDINTZA BETE BEHAR DABE JAKINARAZPEN FORMALEK?**

Jakinarazpen formalak idatziz egingo dira, informazioa ahalik eta argi eta zehatzen aurkeztuz, esate baterako:

- Barriemoilearen nortasuna.
- Barriemoileagaz hartu-emonean jartzeko bideak.
- Salatutako pertsonaren nortasuna.

- Gertaerak eta salaketaren arrazoia.
- Ustez urratu izan diran arau legalen zehazpena, ahal izan ezker.
- Salatutako gertaerari eusten deutesen elementu frogagarriak, egon ezker.
- Antzemandako arau-haustearen barri daben pertsonen nortasuna, dagokionean.
- Lekua, data eta sinadura.

Ez da komeni jakinarazpenak era anonimoan egitea, horrek zailtasunak ekarri leikezalako gertaeren balizko ikerketarako eta jardunbidearen jarraipena oztopatu leikelako.

## **5. ZELAN BIDERATZEN DA JARDUNBIDE FORMALA?**

### **5.1. Jakinarazpena hartu izanaren adierazpena**

Informazioa hartu izanaren adierazpena, jakinarazpena hartzen danetik gehienez zazpi (7) egun naturaleko epean bialduko da, mezuaren konfidentzialtasuna edo barriemoilearen nortasunaren babesa arriskuan jartzen ez badau behintzat.

### **5.2. Onarpen-izapidea**

Hartu izanaren adierazpena bialdu ondoren, jasotako informazioak honako Protokolo honen ezarpenerako eremuaren barruan dagozan gertaera edo jokaerak azaltzen dituan egiaztatuko da. Horretarako, Kanal etikoaren Kudeatzaileak informazio gehiago eskatu leikeo barriemoileari; FUNDAZINOKO, Bizkaiko Eleizbarrutiko ikastetxeei edo Bilboko Elizbarrutiko beste pertsona batzuen laguntza eskatu leike, edo kanpoko profesionaleri aholkularitza eskatu.

Aurretiko azterketa hau eginda, eta gehienez hamalau (14) egun naturaleko epean, Kanal etikoaren kudeatzaileak, erabakia hartuko dau:

#### A) Jakinarazpena ez onartu, ondorengo kasuetan:

- Kontatutako gertaerek inongo sinesgarritasunik ez dabenean.
- Jakinarazpenak oinarririk ez dauanean, zantzu nahiko aurkezten ez denean edo argi eta garbi legez kontrako bideetatik lortutako probak ditunean.
- Jakinarazpenean kontatutako gertaerek FUNDAZINOAREN Araudi Etikoaren edo indarrean egonda ezarri egin behar den legeriaren urratzea ez dakartenean.
- Jakinarazpena amaitutako aurreko jardunbideren bati lotuta egonda, jakinarazutako arau-hausteei buruzko argibide barri edo esanguratsurik gehitzen ez dauanean.

#### B) Jakinarazpena Bilboko Gotzaitetikiko Bikario Nagusiarengana edo Elizbarrutiko Gotzainarengana bideratu, honako kasuetan:

- Salatutako Ekintzak Kanal etikoaren Kudeatzaileak egin dituanean.
- Kanal etikoaren Kudeatzailea jakinarazpenean jasotako informazioari dagokionez interesen gatazkan denean.

C) Jakinarazpena izapidetzea onartu.

D) Jakinarazpena bideratzeko agintari eskuduntzat joten danari bialdu.

Barriemoileari hartutako erabakiaren barri emongo jakoo, jakinarazpena anonimoa ez bada edo barriemoileak prozeduraren egoerari buruzko argibideak jasotzeari uko egin ez badeutso behintzat.

### **5.3. Espedientea irekitzea eta izapideak egitea**

Jakinarazpena izapidetzea onartuta, espedientea ireki eta izapideak egingo dira, eta kontatutako gertaeren sinisgarritasuna egiaztatzeko ezinbesteko diran jarduketa guztiak burutuko dira.

Kanal etikoaren Kudeatzailea arduratuko da izapideak egiteaz eta, gaiaren konplexutasuna ikusita, honako Jardunbidearen ezarpena dala-eta, honako zerbait egin leike:

- Barriemoileari argibide gehiago eskatu.
- FUNDAZINOKO, Bizkaiko Eleizbarrutiko ikastetxeetako edo Bilboko Elizbarrutiko beste norbaiten laguntasuna eskatu; pertsona horreek nahitaez lagunduko deutse.
- Kanpoko aholkularien, profesionalen edo kontu-ikuskarien kontratazioa eskatu.
- Beste norbaiti agindu izapideak egitea. Honek bere jarduketan barri emongo deutso Kanal etikoaren Kudeatzaileari.

Espedientea, jakinarazpena jaso daiten egunetik hasita gehienez hiru (3) hilabeteko epean bideratuko da, epe horren luzatzea eskatzen daben konplexutasun bereziko kasuetan izan ezik; honakoetan, beste hiru (3) hilabeteko luzapena gehituko da.

Ikerketaren edozein unetan ez-zilegi penala egin izanaren zantzu nahiko antzeman ezkerro, informazioa agintari eskudunari bialduko jako eta espedientea agiritegian gordeko da.

Espedientea ireki izanaren barri emongo jako dagokionari. Gainera, abisu horretan, jakinarazpenean jasotako gertaeren kontaketa laburra egingo da, eta bere eskubideen eta datu pertsonalen prozesamenduaren barri emongo jako. Dana dala, abisu hau komenigarritzat jotzen dan beste denpora atzeratu daiteke probak ezkutatzeko, desegiteko edo aldatzeko arriskua dagoan kasuetan.

Dagokionak alegazinoak aurkeztu leikez idatziz; bertan gertaeren bertsinoa emoteaz gainera, bidezkotzat joten dituan froga-bitartekoak aurkeztuko ditu. Alegazinoak aurkezteko emongo dan epea ez da ez zazpi (7) egun naturaletik beherakoa ez hogeta hamar (30) egun naturaletik gorakoa izango.

Dagokion pertsonari ezelan be ez jako emongo barriemoilearen nortasunaren barri eta sekula ez dau jasotako jakinarazpena eskuratu ahal izango. Halanda be, dagokion pertsonaren defentsa-eskubidea bermatze aldera, espedientea eskuratu ahal izango dau, baina zentsuratuta egongo da eta ez dau barriemoilea nor dan jakiteko aukerarik izango.

Kanal etikoaren Kudeatzaileak zein espedientearen izapideak egiteko ardua dabenek isilean gordeko dabez ikertzen ari diran kontuaren inguruan jaso daiezan argibide guztiak.

#### **5.4. Terminación de las actuaciones**

##### **5.4. Jarduketan amaiera**

Izapideak egin ondoren, Kanal etikoaren Kudeatzaileak txostena egingo dau gauzatutako jarduketa, guztien, lortutako frogen eta egiaztatutzat joten diran gertaeren barri emonez. Dagokionean, hartu beharreko neurri zentzagarrien edo prebentiboen txostena be egingo dau, eta dagokionari bialduko deutso berehala ezarri daian. Izapideak egiteko arduraduna izendatu badau, honek bialduko ditu dalako txosten horreek, Kanal etikoaren Kudeatzailearen oniritziagaz.

Txostenak egin eta bialdu ondoren, Kanal etikoaren Kudeatzaileak espedientea agiritegian gordeko du.

Barriemoileari izapideen amaieraren eta espedientea agiritegian gorde izanaren barri baino ez jako emongo.

Kanal etikoaren Kudeatzaileak hartutako erabakiak ez dira apelatzeko modukoak, haregaitik barriemoilea kontua konpontzeko agintari eskuduntzat joten dauanarengana jotea eragotzi barik.

##### **5.5. Argibideen erregistroa**

Kanal etikoaren Kudeatzaileak jasotako argibideen eta dalako jakinarazpenak dirala medio burututako barne ikerketen erregistro-liburua kudeatuko dau. Agiri hori ez da publikoa izango eta indarrean dan legeriak eskatutako konfidentzialtasun-baldintzak beteko ditu.

Urtean behin, Kanal etikoaren Kudeatzaileak jasotako jakinarazpenen, irekitako espedienteen, jarduketan eta Kanal etikoari lotuta hartutako neurrien laburpena egingo dau eta beronen barri emongo deutso Gotzain Kontseiluari.

Agiri hori zentsuratuta egongo da, hau da, ez dau ikerketa-lanen ondorioz jasotako inongo informazio konfidentzialik jasoko, ezta barriemoilea edo dagokion pertsona nor dan jakiteko balio leiken inongo daturik be.

## **5.6. Protección de la persona informante**

### **5.6. Berriemailearen babesa**

FUNDAZINOAK, eta Bilboko Elizbarrutiak jardunbide formalari ekiten jakonean, ezinbesteko neurriak hartuko ditu barriemoilearen nortasuna gordetzeko, bere datu pertsonalen konfidentziasuna ziurtatzeko eta bere aurkako ezelango mendekurik ez izatea bermatzeko.

Honen haritik, erabat debekatuta dago edozein mendeku, mehatxu edo behartzerik fede onez barri emon daien pertsonen aurka eta ikerketan eta espedientearen izapideak egitean lagundu leikien pertsonen aurka.

Hala eta guztiz be, jakinarazpenean kontatutako gertaerak indarrean dan legeriaren urratzetat hartzeko moduko zantzurik izan ezkeru, FUNDAZINOAK (edo Bilboko Elizbarrutiak jardunbide formalari ekiten bajako) ikerketaren irekieraren edo arlo administratibo edo judizialean ikerketa martxan jaratearen ondorioz, eskatutako argibide guztiak, barriemoilearen nortasuna barne, emongo deutsez agintari eskudunei.

## **6. DATU PERTSONALEN BABESA**

FUNDAZINOAK (edo Bilboko Elizbarrutia jardunbide formalari ekiten bajako) da datu pertsonalen prozesamenduaren arduraduna Kanal etiko honen eremuan, eta argibideen jakinarazpen prozeduran tartean dagozann pertsonen datu pertsonalen konfidentziasuna eta babesa bermatzeko konpromisoa hartzen dau, unean-unean datu pertsonalen babeserako araudiak ezarritako betekizunak betez.

Kanal etikoari lotutako Protokolo honen arabera datuak eskuratzea dagokien pertsoneri bakarrik mugatuko jake espedientearen inplikatur dagozan pertsonen datu pertsonalak jadesteko aukera.

FUNDAZINOAK (edo Bilboko Elizbarrutiak jardunbide formalari ekiten bajako) bereziki nabarmenduko dau barriemoileari dagokiozan datuen konfidentziasuna. Hala eta guztiz be, salatutako gertaerak indarrean dan legediaren urratzetat hartzeko moduko zantzuak dagozanean, FUNDAZINOAK (edo Bilboko Elizbarrutiak jardunbide formalari ekiten bajako) barriemoilearen nortasunaren barri emon leikie agintari eskudunei, beharrezkoa izan ezkeru.

Espedientean inplikaturatuta dagozan pertsonen datu pertsonalak haren izapideak egiteko behar den denboran gordeko dira bakarrik, hau da, normalean ez hiru (3) hilabete baino gehiago jakinarazpena jasotzen dantetik. Epe hori bakarrik aparteko konplexutasuna daben kasuetan luzatu ahal izango da. Halanda be, epeak beteta, barne auditoretzak egiteko, edo jakinarazpenaren eta prozedura administratibo edo judizialen edo ikerketen emaitza lez gorde behar izan ezker, datuak, datuen babeserako lege-formaltasun guztiak betez prozesatzen jarraituko da.